

# Noaia!!!

www.noaia.com



Abuztuaren 29an hasiko dira Atxegaldeko festak



Santioak, bete-bete



# Zumeta Jatetxea

Ondo pasa Sanestebanak!!

## Astelehenetik Igandera

- Menu Berezia 20€ (Aukera ederra)
- Degustazioa menua
- karta

## Astelehenetik Ostiralera

- Eguneko menua

## Igandetik ostegunera

- Gaez itxita  
(Erreseba eginda zabaltzeko aukera)



**Txokoalde auzoa, 34 · USURBIL · ☎ 943 362 713**

## USURBIL S.L. SENDATEGIA



Sanesteban auzoa, 48

Telf: 943 36 11 24 · Faxa: 943 36 28 98

Medikua: e-mail: sanasur@facilnet.es

Administrazioa: e-mail: sanadire@facilnet.es

Ondo igaro festak!

## Karobi nekazalturismoa

Ondo pasa Santio Jaiak!



• Logelak bainugelarekin



943 360 635 / 605 704 813

Albistea iruditan !!

## Aldaketak kale izendegian

**S**ekaña eta Kanposantuazpi lur eremuetan eraikitzen ari diren etxebizitzek, hamar atari berri sorrazaziko dituzte. Eta horrek kale izendegia egokitzea eragin du. Aldaketak, Alperroburu eta San Inazio kaleetan egin dira. Orain arte, Alperroburu kaleko 1-3 atariak izan direnak, San Inazio kalera igaro dira. Beraz, aipatu etxebizitzak San Inazio kaleko 1 eta 3 zenbakidun atariak izango dira aurrerantzean.

Horrez gain, lehen, San Inazio kalean kokatzen ziren etxebizitzetako atari zenbakiak ere aldatu dira. Hala, orain arte, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 zenbakidun atariak, honako zenbakiak izango dituzte aurrerantzean, hurrenez hurren; 10, 14, 16, 12, 18, 20, 22 eta 24.



IRUDIKOA AURRERANTZEAN SAN INAZIO KALEA IZANGO DA.

Hitz gutxitan, Gaztañaga aurreko errotonda parean hasten zen Alperroburu kalearen luzera kanpo-

santu pareraino moztu da eta tarte hori, San Inazio kaleak beteko du aurrerantzean.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordinerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) - [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Intza Salsamendi, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketak: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Irprintategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

ZUBIETAKO JOLAS TXOKOAK \_\_\_\_\_ **8. OR.**

ATXEGALDEKO FESTAK \_\_\_\_\_ **17. OR.**

KIROLDEGIAN ALDAKETAK DATOZ \_\_\_\_\_ **19. OR.**


GOARDIAKO FARMAZIAK UDAN \_\_\_\_\_ **20. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

## Hain zuzen (eta hain oker)

**G**asoila garesti dagoela diogunok gasoila botatzen jarraituko dugu, inon kexurik azaldu gabe. Garraiolarien greban, zure kezka bakarria depositoa goraino betetzea baitzen, sekula goraino bete ez duzunean. Are gehiago, depositoa erdira jaitsi eta berriro betetzen zenuen, badaezpada ere. Egun haietan, inoiz baino diru gehiago egin zuten gasolindegiek. Orain nor akordatzen da erregaien prezioa zela, besteak beste, erdibidean geratu zen protesta haren arrazoï nagusietakoa?

Tailerrean izan zara duela gutxi. Kotxeak ez du arrankatzen eta bultzaka ibili behar autoa martxan jartzeko. Tailerra goraino dago, "oporren atarian gaude, badakizu, urteroko eromena". Ezin dizu momentuan atenditu baina zuk autoa behar duzu. Derrigorrez. Bi egunetara konpondu dute autoa. Arrankatzeko motorra izorratuta dagoela eta olio litro bat bota behar izan dutela. 400 euro ordaindu behar izan dituzu. Hala ere, pozik. Sikiera egun lanpetu hauetan, tarte bat egin dizute autoa konpontzeko. Eta eskerrak emanez joan zara tailerretik.

Biharamunean autoak olioak galtzen duela ikusi duzu. Tailerrera berriz ere. Gainezka daudela eta ea biharamu-

nean joango zaren erreguka hasi zaizkizu. Zuk baietz, baina ez ote den bidean autoa izorratuko. Azkenean, tailerrekoak kapota ireki eta konturatu da aurrekoan motorraren tapa jartzea ahaztu zitzaizela. "Badakizu, presaka gabiltza egun hauetan". Olioak motor osoa zikindu du baina instant batean garbitu dute, galdu duen olio berdindu eta tapa behar bezala jarri diote. "Lasai, denoi gertatu dakiguke" esanez joan zara tailerretik.

Etxea erosi zenuenean, euriborraren aldeko apustua egiteko esan zizun aurrezki kutxako asesoreak. Ordutik igo besterik ez da egin hilabetean ordaindu beharreko kopurua. Baina ez duzu protestarik egingo. Pobre izatea ez dago modan, eta kexu azaltzea pobre itxura ematea litzateke. Lagun batek esandakoa ekarri duzu gogorra. Duela gutxi, aurrezki kutxa batean izan dela. Mailegu bat nahi zuela bere lehen etxebizitza erosteko. Nire lagunak duen soldatarekin eta dituen aurrezki apurrekin, aurrezki kutxakoak asko sentitzen zuela baina ezin ziola mailegurik eman. Nire lagunak, hala ere, eskerrak emanez alde egin zuen bankeroaren bulegotik, bera atenditzen eskainitako denborarengatik. Alde, berriz ere, ospa egin, inon kexurik azaldu gabe.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

## ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

## Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 E-posta: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

**CLIMATA-T**  
 Klimazioa erokora  
 ☎ 687 858 390  
 climata\_t@yahoo.es

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA DN LINE • INKESTAK • FOROAK • POSTA

**www.noaua.com**  
 USURBILGO ATARIA

# Hastapen tailerrak, lanbide bat ikasteko aukera aparta

**L**anbide hastapen tailerrei esker, gazte askok ofizio bat ikasi dute. Eta ikasitakoa ogibide bat aurkitzeko baliogarria izan zaie. Usurbilen bertan, ileapaintzaile ikastaroa edota karrozeria ikastaroa erakutsiko da. Irailean hasiko da ikasturte berria eta jada ireki da izena emateko epea.

Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko hitzarmenari esker abiatu ziren lanbide hastapen programak. Irailean hasiko da ikasturte berria eta jada izena emateko epea ireki da. Eskaintza guztiz egokia da ikastea gustuko ez eta ogibide bat ikasi nahi duten gazte guztientzat.



IZENA EMATEKO GARAIA DA, UZTAILEAN ETA IRAILEKO LEHEN HAMABOSTALDIAN.

## Espezialitateak eta baldintzak

### Espezialitateak

**Andoainen:** Soldadurako langilea; Karrozeriako langilea.

**Usurbilen:** Ileapaintzaile laguntzailea; Sukaldaritzaz-zerbitzari langilea.

### Baldintzak

Usurbilgo gazteei zuzendua (neskak eta mutilak).

Adina: 16-18 urte. Salbuespen gisa,

eta baldintzapean, 15 urteko gazteek parte hartu ahal izango dute.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulurik lortu ez duten ikasleak.

- Lanbidearekiko motibazioa dutenak. Lanbide hauetan lana lortu nahi dutenak.

- DBH graduatua edo erdi-mailako sarbide froga gainditu nahi duen gaztea.

## Ikasketa programa

**Lehenengo Ikasturtea:** 2008 iraila / 2009 ekaina (1.050 ordu).

**Bigarren Ikasturtea:** 2009 iraila / 2010 ekaina (1.050 ordu).

**Sakontze ikastaroa:** 700 ordu.

**Eskualdeko enpresetan lanpraktikak:** 350 ordu.

**Programaren iraupena:**

**Bi ikasturte,** 2.100 orduko formazio teoriko-praktikoa.

## Kalitatezko lan munduratzea ziurtatzen duen ikastaroa

**H**asierako Lanbide Prestakuntzako Programak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) gainditzeko arazoak dituzten ikasleei zuzenduta daude. Kalitatezko lan-munduratzeko dien oinarriko eta lanbideko prestakuntza eskaintzen zaie. Horretaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua ateratzeko edo Erdi Mailako Lanbide Heziketan sartzeko

probetara aurkezteko laguntza eskainiko zaie.

### Teoria eta praktika

Bi ikasturtetako programa hau burutu ondoren eta 2.100 ordutako formazio teoriko-praktikoa jaso ondoren, ikasketekin jarraitzeko aukera dute. Nola?

-Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko 1. mailako lanbide-pres-

takuntzen gaitasunak eskuratuz.

- Erdi-mailako lanbide heziketako froga gainditzeko aukeraz baliatuz.

- DBH graduatua lortzeko aukeraz baliatuz.

### Izena emateko epea irekita

Uztaila eta irailaren lehenengo hamabostaldian. Usurbilgo Udalan.

Telefono zenbakiak: 943 37 19 51 // 943 36 04 65.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Izan zarenagatik



Zure izate hutsak betetzen zidan gorputza. Goxoa, atsegina, maitagarria. Kutsagarria zinen. Zure baitan zen orok kutsatzen gintuen. Alaitasunak, gauzak ondo egin nahiak, jakinminak, laguntasunak, maitasunak... ezinezkoa zen zuk

balore horiek geureganatu ostean, guk, atzera, zuri ez itzultzea. Maite gintuzun bezala maite zaitugu: asko-asko!

Bizia eman duzu zure desioetan. Zure on egin beharren desioa. Txepetxa baino arinago zituen hankek behar genuenero gure aldamenean egoteko parada eskaintzen zioten. Haritz enbor baten gorputzak gu hirurok besarkatzeko. Artzainarenak ziruditen beso mehe baina sendo haiek gu hezi gintuzten. Begi beti erreparatu haiek txikitetasunaren handitasuna ikusarazten zioten, betaurrekoak balitu bezala. Bihotzak, bilobei laztantzea bezain goxoa, gure ama maitagarriarengana zuzendu zuen. Oiartzun handia zuen gudan zuk esanak.

Zuk erein duzun guztia bildu dugu: mendia, musika, animaliak, kirola, hizkuntza, erreka, liburuak, makila,

itsasoa, dokumentalak, baratza, argazkiak...eta... eta... maitasuna gainezka!!

Bizitzen zenekien. Ilunari argia, gauari eguna eta beltzari txuria aurkitzen zenion. Lana ondo eta gustura eginarene lasaitasunez utzi zenuen. Eta bizikleta hartu eta baratzara joaten zinen, bizikleta oparitu berri dioten haur baten irrifarrarekin. Lagunekin txalupa hartu eta arrantzara, gaztetan koadrilan ibiltzen diren bezalatasu. Amarekin, eta biok bakarrik, ateratzen zineten paseatzera, afaltzera... nobiotan antzera. Bazkariz eta afariz hornitzen gintuzun egunero, familia sortu berriaren ilusio berberarekin. Zernahitan laguntzen gintuzun, zure lan eta betebeharrak garrantzitsuena bailitzan. Bilobak besotan hartuz eta kontuak esanez, aitona txapelduna zinen.

Sentitu besterik ez dago, zure baitan, bizitzaren itxaropen guztiak biltzen ziren. Eta itxaropen guztiak bildu ditugu pausatuta zinen azken unera arte. Eta itxaropena dugu bizi berri hartan ere gu zurekin bezala, zu zureekin ondo zaudela. Gu zurekin bezala, zu gurekin zaudela.

Eskerrikasko aita, izan zaren aita izateagatik.

Eskerrikasko izan dugun aita emateagatik.

AGINAGA

AITOR HELETA

## Joxe Antonio Errasti



Aginagatarren aspaldiko errebindikazioa. Aizan da frontoi berriarena, badira urte batzuk egin zela eta ez da guztien gustukoa beti gertatzen den bezala, baina fisikoki frontoia egin ondoren, koadrila batek joka dezakeen partidaz aparte, frontoiari bizitza eman behar zaio. Federatuen arteko partidak, herrien artekoak, herriko txapelketak, dirua bildu sarietarako, partiden aurretik frontoia garbitu, batzutan epaile lanak egin, bestetan entrenatzaile bezala aritu, beste gutxi batzutan jolasten aritu...

Astearte eta ostegunero Iosu, Haritz, Iban eta beste gazteekin izaten zara. Puntual puntual entrenamendu saioak egiteko prestaketa lanak eginda izaten dituzte, zu iristerako takoen errituala eta beroketak eginda izaten dituzte.

Batzutan kritikatu izango zara eta gutxi batzuk eskertuko dizute egindako lana, baina nik hemendik animatu nahi zaitut horrela jarraitzera, aupa Joxe Antonio!

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Urdaigako kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

## Gora Atxegaldeko jaiak!

Hurbiltzen ari direla! Udararekin batera festa usaina nonahi eta hauekin batera Atxegaldekoak ezin dira falta. Jada, bada denbora tarte bat Atxegaldeko gazteak festak antolatzen hasi direnetik. Asteburuetan biltzen zaizkigu auzoko lokalean. Aurten ere aurreko urtean bezala festa girotsu eta onak prestatzeko asmoz. Beraz, gonbidatuta zaudete gure auzoko festetara! Iaz izan genuen antzeko giroan murgildu zaitezte!

Eta gai nagusi gisa festak ditugula, ez dezagun ahaztu gairen ditugula Zubietako Santioak ere! Ondo pasa festak eta gutxi gastatu!



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Zorionak antolatzaileoi!!



**B**ai, aste honetan lerro hauek Kalezarko jaiak antolatzen ibili zaretenoi ZORIONAK emateko erabiltzea okurritu zait.

Antolatzen zabilzatenon artean bazaudete hainbat urteak daramatzazuenak, bi lan zeuengan hartuaz: jaiak antolatzekoa eta jaietz gozatzekoa. Biak ere ez dira lan makalak. Beste batzuek berriz ez daramazue hainbeste denbora, baina zuen prestutasuna eta gogoia eskertzekoak direla esan beharra daukat.

Baina horren guztiaren gainetik bada bereziki garrantzitsua iruditzen zaidan zerbait eta hori zera da, jaiak denengan pentsatuta antolatzea; haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak. Beti pentsatu izan dut herri batean denak direla funtsezkoak eta hori kontuan harturik, jaiak ere denentzat izatea ezinbestekotzat jotzen dut.

Are gehiago, antolaketa lanetan denetarik egotea ere garrantzitsua iruditzen zait. Gazteak bere zatia aportatuko du, helduak berea eta adinekoak ere berea eman dezake. Eta, horixe da hain zuzen ere aurten somatu dudana; denon artean denontzako jaiak antolatu dituzuela eta denek izan dugula gozatzeko aukera. Noski, normala den bezala,



batzuek besteak baino gehiago gozatuko dute eta gaueko zaratak agian norbait haserretuarazi dezake baina horretan ere denetik egon omen da; txoznan lanean zegoenetako batek helduagoak direnei lotara joateko garaia iristean, txoznetako musika jaitsi egiten omen zuen! Hori bai hori besteekiko errespetua.

Tira, ESKERRIK ASKO denoi, uda ona pasa eta datorren urtera arte, ondo izan.

SANTUENEA

ALEX TELLO

## Kulturgintza herrigintza



**U**dan, Zubietako jaien ostean, abuztuan zer? Jaiak. San Esteban hasieran. Bukaearako Atxegalde eta Santuenea. Tartean? Jaiak. Donostian eta toki askoetan. Jaiak eta oporrrak (eta askorentzat lana ere), uztailean bezala. Jaiak, tabernak, kalerako giroa... Bizitza soziala.

Soziala bai, kulturala ordea... Hara! Askotan bai eta beste askotan ez. Nola edo hala irailetik ekaina bitarte zernahirako tartea eta astia izango ditugu, parte hartzeko gogotsu baikaude.

Egia esan, kultura oso zabala da, ez baita bakarrik herrian 'aktuazioak' programatzea: folklorea, musika, antzerkia... arteak orobat, eta akaso tradizioetat konprenitzen dugun jarduera anitz oro, eta kirolak, 'soziedadeak', eskola eta abar anitza.

Kultura herrigintza baita, herri biziaren isla. Eta, kultura, urte osoan egiten da. Eta, oporrrak, jaiak? Askok udan, baina urteko beste sasietan egiten dituztenak badira ere.

Irudi dezakeen arren udan negutegian dagoela, kulturak udan ernai dirau, nahiz bare ez geldo. Hala, herriak bizirik segitzen du. Bakarka, taldean, era pribatuan zein publikoan, biztanle edota herritarrok urtean zehar kultur-lana egingo dugu? Agian bai, agian ez. Ez baita derrigorrezkoa, ezinbestekoa baizik. Ezinbestekoa izanik, ez da derrigorrezkoa. Hala, bizirik segitzen dugu.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

## Borroka bai, jaiak ere bai

**E**satera alderantziz da, badakit, baina Egureari lotuago ikusten dut horrela. Abenduaren 31n baino, nire urtea San Inazio egunean bukatu ohi da eta "urtearen" balantzea eginda herri honek nahikoa borroka egin duela iruditzen zait: herri nortasuna mantentzen, Batzarraren erabakimena aldarrikatzen, Donostiaren handinahikeria eta gure babesgabetasuna salatzen, kartzela eta erraustegiaren kontra egiten, eskola txikiaren baldintzak hobetzen, Olatz etxerazten...

Zubietarron bizi kalitatea kaltetuko duten berri ugari jaso dugu ikasturte honetan, prentsatik zein erakunde-enganetik, eta horren adibide gordin izan zen Donostiako Udaleko teknikariak emandako aurkezpen lotsagabea. Baina, tira, berri onak ere izan ditugu: Olatz gurekin da, plazako ume-festak bizitu egiten du herria, kirolari zein bertsolari gazteak loria ekarri digute herri- eta udaberri euritsuaren ondoren eguzkia ere azaldu zaigu tarteka. Ospa dezagun bada! Jai Batzordekoek prestatutako egitarauarekin, aitzakiarik ez; ondo pasa jaietan!



## 21 gaztetxo Zubietako Udako Txokoetan

**E**txean bezala dabilta Zubietako udako txokoetan izena eman duten 2-11 urte arteko gaztetxoak. Une atseginak igaro ohi dituzte astegun goizetan, Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak antolatu dizkien ekintzetan. Aisialdi eskaintza, uztaila hasieratik abuztu amaierara luzatuko da. Zer gustura dabilzan kontuan hartuta, akaso gutxitxo gaztetxoentzat.

Zubietako eskolak ez zituen atea ekainean itxi. Bertako ikasleentzat ikasturtea amaitu zen, baina hil hasieratik abuztu amaierara arte zabalik jarraituko du astegun goizetan. Gaztetxoei zuzendutako aisialdi eskaintzaren gunean bihurtu da eta, Zubietako eskola. Bi eta hamaika urte arteko 21 gaztetxok izena eman dute uztailerako. Erdiek abuztuan ere jarraituko dute, egun gutxi barru estreinatuko dugun hil horretan matrikulatu diren gainerakoekin batera; guztira, hemezortzi.

### UDAKO TXOKOAK

“Denak elkarren artean ezagutzen dira, urte osoan ikaskideak izan baitira”

Denak ere elkarren artean ezagutzen dira, urte osoan zehar, ikaskideak baitira gehienak. Aginagan gertatu ohi bezala, Zubietako eskolan ere adin tarte desberdinetako ikasleak biltzen dira ikasgela bakar eta berean. Horregatik, udako txokoetan lanean dabilzan bi hezitzaileek, parte hartzaileak bi taldetan banatzeko zuten asmoa bertan behera utzi eta talde bakarrari eutsi diote. Horrek gaztetxoentzat dakarren aberastasunarekin. Hain adin tarte zabaleko partaideak izanik, zaharrenek urte kopuru txikiena dutenengandik eta alderantziz ere, zer ikasia edukiko dute eta.



ABUZTU AMAIERARA ARTE ZABALIK JARRAITUKO DUTE UDAKO TXOKOAK ZUBIETAN. OPORRALDIKO ASTEGUNETAKO GOIZAK PRIMERAN PASATZEKO AUKERA.

### Jende berria ezagutzea

Gainera, horrelako ekimenak, udako oporraldian zer egin ez dakitenez konponbide egokiak izan ohi dira. Tarte atsegin eta entretenituak igaro ohi dituzte udako oporraldiko astegun goizetan. Eskolan edota frontoian jolasean ibiliak dira, besteak beste, monitoreen esanetan, gustukoenak dituzten urari lotutako denbora pasetan. Sukaldaritza munduan ere lehen urratsak emateko asmoa dute. Ogia nola egiten den ikastea izango da, aurten lehen aldiz, Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak antolatu duen udako aisialdi eskaintzaren helburuetako bat. Beste asmoetako bat, jende berria ezagutzea. Ekimenaren antolakuntza non burutzen den aintzakotzat hartuta, zubietar gaztetxoei aisialdi eskaintza berean izena eman duten lasartearrekin egoteko aukera dute.

Pasa den uztailaren 17an bezala. Urteroko Amaraun jaialdia ospatu zuten Lasarte-Oriako kultur etxean. Talde bakoitzak bere dantza saioak edota bertsoak prestatu eta gainera, aurrean aurkeztu zituzten. Gaztetxoei eguneroko testuingurutik

kanpora egindako irteera guztietan bezala, primeran pasa zuten. Lasarte-Orian ez ezik, Usurbila ere txangoak antolatu izan dituzte. Santixabeletako haurren eguneko ekitaldietan parte hartu zuten zubietarrek, eta beste goiz batean Urdaiaga aldean ere izan ziren.

### Zubietako Udako Txokoak, abuztu amaierara arte

**B**este hainbat ekintza prestatu dizkiete antolatzaileek datozen egunetarako. Uztaila amaiera gertu dago eta azken egunean, bereziki udako aisialdi eskaintza amaituko duten haurrentzat agur festa berezia ospatuko dute. Beste hainbeste egingo dute, abuztuaren 29an ere. Egun horretan amaituko da aurtengo oporraldiei begira prestatu duten eskaintza. Eta iraila hastearrekin batera, eskolak atea irekiko ditu berriro, 2008-2009 ikasturterari ekiteko.



# Abuztuaren 29tik 31ra, Atxegalden jai!

**I**azko harrera errepikatu eta hobetzeraz datoz, bueltan berriz ere, Atxegaldeko festak. Antolatzaileak dagoeneko jaietako azken prestaketa lanetan murgilduta dabilta. Abuztuaren 29tik 31ra, musika emanaldiak, herri afaria, haurrentzako jolasak... denetik izango da. Jai Batzordekoek herritarrei oro har, eta nola ez modu berezian auzotarrei, auzoko festetan parte hartzeko gonbita luzatzen diete.

Indartsu itzuli ziren iaz Atxegaldeko festak, hamabost urtetik gorako etenaldiaren ostean. Haur, gazte eta helduek, auzotarrek bereziki, garai bateko jaietako oroitzapenak berritzeko aukera aparta izan zuten. Oholtza, txosna eta jaietarako espresuki eraikitako aterpe azpiko mahaiekin jaietako plaza berreskuratu zen.

Pasa den urtekoaren bidetik, gune hura auzotarren eta bertaratzen direnen bilgunean bihurtuko da beste behin, abuztuko azken asteburuan. Adin tarte guztientzako ekitaldiak prestatu dituzte antolatzaileek. Jaiak abuztuaren 29an hasiko dira, ostiralez. The Txortains taldeak lagundutako poteoak eta jaurtitako lehen suziri hotsek inauguratuko dituzte festak. Lunch-a jarraian eta gauean berriz, musika nagusi, Pikutara, Mendeku Itxua eta Dj Larrak aukeraturako doinu dantzagarrienekin.



IAZ BEZALA, AURTEN ERE DJ LARRA IZANGO DA ATXEGALDEKO FESTETAN.

## Herri-afaria, abuztuaren 30ean

Hurrengo 48 orduetan ere festek ez dute atsedean handiegirik hartuko. Haur eta gaztetxoek eguna izango da hilaren 30ean. Goizean antolatzaileek jarritako jokoetan entretenitu edota Udarregi ikastolako plazan kokatuko diren puzgarrietan saltoka ederki asko ibiliko dira. Mus zaleek, iaz bezala, hitzordua dute txosna ondoko mahaietan. Arratsaldeko lauretatik aurrera izena eman beharko du, ordu erdi beranduago karta jokoan aritu nahi duenak. Iluntze horretan izango den herri afarirako txartelak datozen asteetan jarriko dituzte salgai. Afalosterako berriz, Odolaren

Mintzoa eta Beste Bat taldeen kontzertuak izango dira.

## Traka ikusgarria amaitzeko

Txerriki antzerki taldeak Santixabeletan bakarrik ez, Atxegaldeko jaietako azken egunean ere emanaldia eskaintzekoak dira. Jarraian izango den salda banaketak, txapelketen arratsaldeari txanda emango dio; toka saioari eta patata tortilla onena egiteko lehiari hain zuzen. Joxpa taldearen eskutik izango den dantzaldiarekin jaien amaierara hurbiltzen ari garela antzemango da. Benetako akabera, iaz bezala, traka argitsu eta zarata-suak emango baitie.

## Atxegaldeko festen jai-egitaraua

### Abuztuak 29, ostirala

17:00 Poteoa, The Txortains taldearekin.  
19:30 Txupinazoa.  
Ondoren, lunch-a.  
22:30 Pikutara, Mendeku Itxua eta Dj Larra.

### Abuztuak 30, larunbata

11:00 Haurrentzako jolasak eta

Udarregi ikastolako plazan puzgarriak.

14:00 Bazkaria, norberak etxetik ekarrita.  
16:30 Mus Txapelketa (izen ematea 16:00-16:30 artean).  
17:30 Txokolatada  
21:00 Herri afaria.  
00:00 Odolaren Mintzoa eta Beste Bat taldeen emanaldiak.

### Abuztuak 31, igandea

12:00 Antzerki saioa, Txerriki taldearen eskutik.  
13:00 Saldan banaketa.  
17:00 Toka txapelketa.  
18:00 Patata tortilla txapelketa.  
19:00 Piper banaketa eta dantzaldia Joxpa taldearekin.  
23:00 Jaiak amaitzeko azken traka: suziriak eta zezen suzkoa.

## Haurren Eguneko antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile denei

**U**rtero bezala, aurten ere Santixabeletako Haurren Eguneko ekitaldiak antolatzeko ardura herriko guraso talde batek hartu du. Uztailearen 3an, goiz partean hasi eta iluntzera arte iraun zuten ekitaldiak prestatu, guztia ondo lotuta utzi eta egunean bertan, dena ondo joatea ziurtatu dute beste urte batez. Egun hura igaro eta jaiak amaituta, antolatzaileek emandako laguntzagatik eskerrak eman nahi dizkiete honakoei: Eroski, Artetxe, Barrenetxe, Kas, Kaiku, Sarriegi, Josu Serigrafia eta DIA-ri. Modu berean, Ixabelek, Mirenek eta Elenak muxu-truk egin-dako lana eskertu nahi dute.



FRONTOIA HAUR ETA GURASOZ BETE ZEN SANTIXABELETAN, HAURREN EGUNEAN.

## Uraren eguna ospatu zuten Udajolasen

**G**oitik behera bustita amaitu zuten duela egun gutxi Udajolaseko partaide gaztetxoek. Gustukoan duten eguna, urari eskainitakoa ospatu zuten Dema plazan, jada amaierara hurbiltzen ari den udako eskaintzaren barruan. Fresko etxeratu ziren egun hartan. Udalak eta NOAUA!k elkarlanean antolatutako aisialdi ekimena uztailearen 30ean amaituko dute. Ordura arte, ez dira primeran pasatzen jarraitzeko aukera faltan izango; irteerak, jolasak... Denetarik, opor garaiaz gozatzeko.



URAREN EGUNA OSPATU BERRI DUTE UDAJOLASEKOEK.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAN

Aritzitxo 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olantegia - Gortegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

## Udako oporrak eta gero, eguerditan ere irekiko da Oiardo Kiroldegia

**U**ztailearen 27an hilabetez itxi-ko dute Oiardo Kiroldegia. Abuztuko azken astelehenean berrikuntzekin ekingo diote ikasturte berriari. Eguerdietan kirol instalazioak zabalik egongo dira eta kirol eskaintza ere indartuko dute; besteak beste, spinning ikastaroan matrikulatzeko aukera izango da abuztu amaieratik aurrera.

Duela urte gutxi, Oiardo Kiroldegiko instalazioen ordutegia zabaldu zen. Eguerdiko 12:30etik 14:00ra atzeratu zen itxiera ordua. Dagoen eskaerari erantzun asmoz, abuztuko azken astetik aurrera, kiroldegia egun osoz zabalik izango da astegun eta larunbatetan. Etenaldirik gabe, eguerdian ere irekita. Igandetan berriz, orain arteko ordutegia mantenduko da. Kirol Patronatuko arduradunek, eskaintza berri hau martxan jarri eta epe bat igarota, balantzea egiteko asmoa dute. Egindako aldaketak zer nolako harrera izan duen ikusteko.

Ordutegia bakarrik ez, 2008-09 kirol urte berrirako eskaintza ere zabaldu nahi dute. Monitore baten gidaritzapean, bizikleta gainean kirol ariketa desberdinak egitean oinarritzen den spinning ikastaroan izena eman ahal izango da. Baita ohiko beste kirol eskaintzan ere; pilates, mantentze gimnastikan, haur, gazte eta helduei zuzendutako igeriketa ikastaroe-tan... Baina beti bezala, kontuan izan; taldea osatzeko gutxieneko herritar kopuru batek matrikulatu behar du ikastaro bakoitzean. Izena ematea abuztu amaieran zabalduko da. Ikastaroak berriz, urrian martxan jarriko dira.

### Bailarako kiroldegiak zabalik

Igande honetan, uztailearen 27an itxiko dute Oiardo Kiroldegia, abuztuko azken astera arte. Tarte horretan, erabiltzaileek Buruntzaldeko beste herrietako kirol instalazioetara jo dezakete. Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta eta baita Hernaniko



ABUZTUAREN AMAIERAN IREKIKO DA UDAZKENEKO IKASTAROETAN  
IZENA EMATEKO EPEA.

kiroldegira ere. Gogoan izan, duela gutxi aipatu bost herrietako udaletatik lauk kirol hitzarmen berri bat sinatu dutela, Hernanikoak izan ezik. Azken hau, Buruntzaldeko kirolaren alorreko elkar-lan horretatik kanpo geratu da. Erabaki horrek, besteak beste, bailarako erabiltzaileei eragingo die, usurbildarrei adibidez. Oiardo kiroldegiko erabiltzaile txartela ez da Hernaniko kiroldegian sartzeko baliagarria izango.

Baina aipatu hitzarmena irailaren 1ean sartuko da indarrean. Beraz, ordura arte herri hartako kirol instalazioak erabili ahal izango dira, orain arte bezala.

### Udan, ohitura falta

Uztaileko lehen hamabostaldian burutu dira Kirol Patronatutik gaztetxoei zuzenduta antolatu dituzten kirol ikastaroak. Parte hartzaileak gustura aritu dira igerian, mendi bizikletan, eskaladan, hainbat kirol jokoetan... Eskaintza anitz izan eta denetik egiteko aukera egon arren, gutxi eman ohi dute izena ikastaro horietan. Kirol Patronatutik adierazten dutenez, uda partean gaztetxoek nahiago izaten dute kirola haien kabuz egitea.

### Abuztuaren 25etik aurrera, eguerdian ere irekiko da

Abuztuaren 25etik aurrera, Oiardo kiroldegiak honako ordutegia izango du. Aurrerantzean, eguerdian ere zabalik izango da.

**Astelehenetik ostiralera:** 7:00-22:00  
(igerilekua 21:00ak arte).

**Larunbatetan:** 9:00-20:00.

**Igandetan:** 9:00-13:00.

### Udazkenerako eskaintza

